



Ikasgaiaren programa

# GEOGRAFIA

## 0. ZER DA DOKUMENTU HAU?

*Dokumentu honetan Geografia ikasgaiaren urteko plangintza azaltzen da. Bertan ikus daitezke:*

- 1. Ikasgaiaren bidez lortu nahi diren HELBURUAK.*
- 2. Ikasturtean zehar landuko diren EDUKIAK, eta eduki bakoitza ikasturteko zein momentutan landuko den.*
- 3. Ikasgaia lantzeko erabiliko den METODOLOGIA; hau da, ikasleek jakintzak eskuratu, praktikan jarri eta integratzeko erabiliko den modua.*
- 4. Ikaslearen lana eta jarrera nola EBALUATUKO den; hau da, irakasleak nola baloratuko duen ikasleak bere jakintzak eta konpetentziak jaso dituela.*
- 5. Ikaslearen nota eraikitzeke KALIFIKAZIO SISTEMA; hau da, ikasturtean zehar ikasle bakoitzaren nota nola eraikiko den (hitzorduak eta jarduerak).*

*Ikasgaiaren nondik norako nagusiak jasotzen dituen dokumentua da hau, beraz. Ikaslearen lana bikaina izateko bidea zein den azaltzen da bertan. Ikaslearen **betebeharra** da, ondorioz, programazio hau ezagutzea eta bertan azaltzen denaren arabera lan egitea.*

*Era berean, ikasle moduan zuen **eskubideak** ezagutzeko eta ikasturtean zehar horren arabera nota ona eraikitzen joateko aukerak baliatzeko jarraibideak topatuko dituzu.*

*Garrantzitsua da kontuan hartzea emaitza bikainak **eguneroko lanaren** bidez ateratzen direla. Nota hobetzen joateko aukera ziurtatuta daukazue ebaluazio guztietan, baina, era berean, egunerokoan **jarrera egokia** izatea, **ekina izatea, kritikotasunez eta autonomiaz jokatzeta**, eta ahal den heinean, **ikasgaiaz disfrutatzea** ezinbesteko bidelagunak izango dira ikasturtea arrakastaz amaitzeko.*

*Beraz, ikasgaiaren egitura eta funtzionamenduaren inguruan izan ditzakezun **zalantzen erantzun nagusiak** dokumentu honetan aurkituko dituzu.*

## 1. IKASGAIAREN HELBURUAK

**H1.** Euskal Herriko eta Espainiako erronka ekosozialak identifikatuz, argudioak kritikotasunez eta irizpide geografikoekin emanaz konponbideak proposatzea.

**H2.** Paisaia natural eta gizatiartuen elementuak eta elkarreragina identifikatuz eta aztertuz, jasangarritasunaren garrantziaz jabetzea.

**H3.** Geografiaren esparru ezberdinetako ikerketak burutzea iturri fidagarriak modu kritikoan aukeratuz eta GITak erabiliz.

**H4.** Globalizazioaren kausa eta ondorioak eta lurraldeen arteko desorekak ulertu honek ingurunean duen eraginaz hausnartuz.

## **2. IKASGAIAREN EDUKIAK**

### **1. BLOKEA> Marko geopolitikoa**

- UD1> Euskal Herriko lurralde antolamendua
- UD2> Espainiako lurralde antolamendua
- UD3> Europar Batasunaren osatze eta bateratze prozesua

### **2. BLOKEA> Iberiar Penintsulako erliebea**

- UD4> Iberiar Penintsulako erliebearen ezaugarriak
- UD5 > Unitate morfoestruturalak: motak
- UD6> Iberiar Penintsularen bilakaera geologikoa
- UD7> Iberiar Penintsulako arroka-eremuak eta erliebe-motak
- UD8> Iberiar Penintsulako erliebearen unitate morfoestruturalak
- UD8> Balear uharteetako eta Kanaria uharteetako erliebea

### **3. BLOKEA> Klima Iberiar Penintsulan**

- UD9> Klimaren faktoreak
- UD10> Klimaren elementuak
- UD11> Espainiako eguraldi-motak
- UD12> Espainiako klima motak

### **4. BLOKEA> Lehen sektorearen espazioak**

- UD13 > Landa espazioa
- UD14 > Baserri espazioaren natura baldintzak
- UD15> Giza baldintzak
- UD16> Baserri jarduerak
- UD17> Baserri paisaiak
- UD18> Baserri jardueren arazoak eta landa garapena
- UD19> Landa espazioko azken aldiko dinamikak
- UD20> Arrantza jardueraren espazioak

### **5. BLOKEA> Industria espazioa**

- UD21 > Industria espazioaren ezaugarriak eta garrantzia
- UD22 > Lehengaiak
- UD23 > Energia iturriak
- UD24 >Espainiako industria 1885etik 1975era
- UD25 > Krisia eta industria berregituraketa 1975-1990
- UD26 > Espainiako industria gaur

### **6. BLOKEA> Hirugarren sektoreko espazioak**

- UD27 > Tertziarizazio prozesua eta hirugarren sektorearen garrantzia
- UD28 > Hirugarren sektorearen ezaugarriak
- UD29 > Garraioak eta telekomunikazioak
- UD30 > Merkataritza
- UD30 > Hirugarren sektoreko beste jarduera batzuk
- UD30 > Turismo espazioak

### 7. BLOKEA> Espainiako biztanleria

- UD31 > Iturri demografikoak
- UD32 > Biztanleriaren banaketa
- UD33 > Biztanleriaren mugimendu naturala
- UD34 > Migrazio mugimenduak
- UD35 > Biztanleriaren hazkunde erreala
- UD36 > Espainiako biztanleriaren egitura
- UD37 > Espainiako biztanleriaren etorkizuna

### 8. BLOKEA> Hiri espazioa

- UD38 > Hiria: kontzeptua eta garrantzia
- UD39 > Urbanizazio prozesua
- UD40 > Hiri morfologia
- UD41 > Hiri egitura
- UD42 > Espainiako hirien arazoak
- UD43 > Hiri espazioaren antolaketa: hirigintza
- UD44 > Espainiako hiri sistema

Ikasgai honetako edukien gutxi gora beherako banaketa hurrengoa da:

	BLOKEA							
EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	1	2	3	4	5	6	7	8
1. Ebaluaketa	■	■	■					
2. Ebaluaketa				■	■	■		
3. Ebaluaketa							■	■

## 3. IKASGAIAREN METODOLOGIA

Testu liburua izango da euskarri nagusia eta bertako informazioa irakaslearen azalpenekin osatu beharko du ikasleak.

Ikas teknikak menperatzea nahi da eta horregatik lanketa sistematizatu bat jarraituko da. Irakasleak gaiaren aurkezpen bat egingo du eta ikaslearen ardura izango da testu eta aurkezpenetatik haien apunteak osatzea. Saio hauetarako, ikasleen parte hartze aktiboa ere beharrezkoa izango da.

Ebaluazio bakoitzean landutako gaiak sartuko dira kontrol edo azterketan eta bertan ikasleak gaia menperatzen duela erakutsi beharko du, ikasgelan azaldutako ideia ezberdinak erlazionatuz.

Edukiak eskuratzeko saioak ez ezik integrazio jarduerak ere egingo ditugu, taldeka zein bakarka. Hauetan zeregin ezberdinak gauzatu beharko dira eta geografiaren ezagutzak eguneroko bizitzan duen garrantzia landuko da.

## 4. EBALUAZIOA

Ikasleak ebaluatzeko eta ikasgaiaren helburuak lortu direla ziurtatzeko froga ezberdinak egongo dira. Azterketen pisua arintzeko kontrolak egingo dira ebaluazio guztietan.

### **AZTERKETAK ETA KONTROLAK**

Froga idatzien bitartez edukiak eta hauen ulermenarekin erlazionatutako kompetentziak (helburuak) ebaluatuko dira. Azterketetan edukien eta kontzeptu teorikoen ulermena eta azalpena baloratuko da, bai eta eabazpen prozeduran erabilitako hiztegia ere. Horretaz gain, emandako azalpenen eta egindako planteamendu eta garapenen heldutasuna, arrazonamendu kritikoa eta sakontasuna baloratuko da.

Azterketak zuzendu ostean gelan komentatuko ditugu, erantzun zuzenak zeintzuk izan daitezkeen eta zalantzak argitzeko tarteak ere izango dugu. Etorkizunera begira haien azterketen indargune eta hobetu beharreko alderdiak identifikatu ahal izateko.

### **INTEGRAZIO JARDUERAK**

Integrazio jardueren bitartez, edukiak osatzeko aukera egongo da. Geografiaren ezagutza eguneroko bizitzan nola txerta daitezkeen eta gaur egun ditugun zein etorkizunean izan ditzakegun erronketatik erator daitezkeen hainbat eztabaida ulertzea da ariketa mota honen helburua. Integrazio jarduerak taldeka zein bakarkako zereginak izango dira.

Integrazio jardueraren azalpenarekin batera jasoko dituzue dagozkion ebaluazio-irizpideen deskribapena eta errubrika.

### **GELAKO JARDUNA**

Geografia ikasgaiaren gelako jardunak %20ko balioa du eta honako irizpideen arabera ebaluatuko da:

1. Euskara. Euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko hautua egitea.
2. Bertaratzea. Gelara ez etortzea ez da aukera bat. Ikasgaiaren justifikatu gabeko 5 hutsegite baino gutxiago behar dira azterketa egin ahal izateko bestela zuzenean berreskurapena egin beharko da. Hutsegitea justifikatzeko astebeteko epea dago, epe horretatik kanpo ez da onartuko. Ikasle bakoitzaren esku geratzen da hutsegiteen kontua eramatea. Ez da hutsegiteen gaineko abisurik emango.
3. Puntueltasuna. Irakaslea izango da klasean sartzen azkena eta datorrenerako ikasleek materiala mahaian izan beharko dute. Berandu iristea hutsegite erdi gisa konputatuko da.
4. Autonomia eta antolaketa

Lana. Denboraren probetxua, materiala ekartzea, ariketak ganoraz eta txukun egitea, etxeko lanak eginda ekartzea...

Lanak epe barruan entregatzea. Epez kanpo entregatzen diren lanak ez dira jasoko, pisuzko justifikaziorik ezean.

5. Hezkidetza. Ikaskideekiko zein irakaslearekiko errespetua.

6. Parte hartzea. Ikasteko nahia eta gogoia. Jarrera positiboa izatea, ulertzen ez dena galdetuz. Mugikorrik ez izatea, inguruko ikaskideak ez oztopatzea... eta entzuten jakitea. Irakaslearen azalpenak zein ikaskideen ekarpenak arretaz entzutea, gorputz lengoia eta jarrera zainduz.
7. Elkarlana eta elkarbizitza. Barne arautegiko eta elkarbizitzako arauak errespetatzea eta kideak laguntzea.

## 5.KALIFIKAZIO-SISTEMA

### HIRUHILEKO BAKOITZAREN KALIFIKAZIOA

LEHENENGO EBALUAZIO-TAKO KALIFIKAZIOA	
ATALA	BALIOA (%)
Azterketa	40
Kontrola	30
Txostena	10
Gelako jarduna	20

BIGARREN EBALUAZIO-TAKO KALIFIKAZIOA	
ATALA	BALIOA (%)
Azterketa	50
Integrazio jarduerak	30 (15-15)
Gelako jarduna	20

HIRUGARREN EBALUAZIO-KO KALIFIKAZIOA	
ATALA	BALIOA (%)
Azterketa	30
Integrazio jardura	30
Gelako jarduna	20

OHIKO EBALUAZIOKO KALIFIKAZIOA	
ATALA	BALIOA (%)
Azterketa	20

Hiruhileko bakoitza gainditzeko bete beharreko baldintzak hurrengoak dira:

- > Prozeduren batezbestekoa gainditzea. (8 puntutik 4)
- > Hiruhileko osoaren batz-besteko orokorra gainditzea. (10 puntutik 5)
- > Integrazio jarduera egiten den kasuan gainditzea (1,5 puntutik 0,75)

### BERRESKURAPENAK

Ebaluazioa gainditu gabeko ikaslearen nota: Berreskurapenaren nota (%90) + jarrera (%10).

	AZTERKETAKO NOTA %90	GELAKO JARDUNA %10
5-6 ateraz gero	5	Nota berdina
6<	$\frac{\text{Berreskurapeneko nota} + 4}{2}$	Nota berdina

### EZ-OHIKO DEIALDIA

Ez-ohiko deialdian ikasgaia atalka edo azterketa bakarraren bitartez gainditzeko aukera egongo da, ohiko deialdiaren prozedura berdina jarraituz.

### IKASTURTEKO AMAIERAKO KALIFIKAZIOA

Ikasturteko nota 3. hiruhileko batz-besteko aritmetikoaren kalkuluaren bitartez egingo da.

Ikasturtea berreskuratzeko azterketa egiten duten ikasleen kasuan bakarrik, batez-bestekoa horrela kalkulatu da:

$$1+2+3. \text{ hiruhilekoen batez-bestekoa} = \text{Notaren } \%25$$

$$\text{Azterketa globalaren nota} = \text{Notaren } \%75$$

### BERRESKURAPENAK

Hiruhilekoak atalka berreskuratzeko aukera egongo da. Berreskurapenak arratsaldean egingo dira, ordu lektiboetatik kanpo.

Hirugarren ebaluaketaren berreskurapena zuzenean OHIKO DEIALDIAN izango da.

### NOTA IGOERAK

Ikasturteko nota hobetzeko aukera egongo da azterketa bakoitzean borondatezko galdera gehigarri bat erantzunez. Galdera honen bitartez ideiak elkarrekin harremanetan jarriz zein gaiaren gainean hausnartuz ebaluazioan zehar landutako jakintzak eta konpetentziak barneratu dituela erakutsi beharko du ikasleak.

Ohiko deialdian berriz, ikasgaia gaituta duten ikasleentzat nota globala puntu bat igotzeko aukera egongo da lan baten bitartez. Baldintzak momentua iristen denean azalduko dizkizuet.

### **haziak > JARRERA PARTE-HARTZAILEA BULTZATZEKO SISTEMA**

Ikasleak bere ibilbide akademikoa indartzen joateko jarrera bultzatzeko sistema da haziena. Helburua da ikasleek urtean zehar ikastolatik bertatik antolatutako zein kanpoko ekintzetan parte hartzea bultzatzea, bere ikasketa prozesua aberasteko balio duten esperientziak biltzen joateko.

Hitzaldi, debate edo mahai inguruetara joanez, erakusketak bisitatuz, antzerki edo dantza emanaldietara agertuz, solasaldi zientifikoetan parte hartuz.... edo, oro har, ikaslearen irteera perfila aberastu dezaketen edozein hitzordu baliatzen bultzatzeko sistema da, beraz.

Horrez gain, jarrera parte hartzaile honek eragina izan dezake ikasturteko emaitzetan. Ikasturtean zehar, ekintza hauetan parte hartu izana erakutsiz gero, hainbat ikasgaitako notak hobetzen joan daiteke.

Horretarako ikasleak, txantiloiz/zeregin berezia bete eta entregatu beharko du:

- Ebaluazio bakoitzeko, gehienez 4 ekintza aurkeztu daitezke hainbat ikasgaitan banatuta.
- Gehienez ere, ikasgai bakoitzaren barruan 2 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.
- Gehienez ere, 10 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.

Hazien bitartez lortutako nota igoerak ebaluazio amaieran aplikatuko dira, ikaslearen ebaluazio horretako batezbesteko orokorra kalkulatu ondoren (eta beti ere, ebaluazioa gaituta dagoenean).

Aurkeztutako ekintzen bitartez, ikasleak bere ikasturteko batezbesteko orokorra 1 punturaino hobetu ahal izango du, ikasgaiaren arabera, horretarako dagokion ebaluazioan behar besteko pisua hartuz. Haziak aurkezteko txantiloia/zeregina Classroom-en eskuragarri egongo da.

### **GARRANTZITSUA**

Edozein momentutan, egoerak hala eskatzen badu, programazio honek egokitzapenak izan ditzake eta horrela jakinaraziko zaizkizue.